


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

MIRAKRUZ 17 A



Egilea eta data: Francisco Urcola; 1928

Deskribapena

Etxadiburua den hiru fatxadako eraikina, altuera handiko behe oina eta jatorrizko sei goi oin (azkena atzeraemana) dituena. Kareharriz estalitako fatxada behe oinean (pilare modukoa ateburu jarraituaren azpian), eta hareharrizko harlandua goi oinetan, mosaiko moduko estaldura zeramikoa duena 5. oinean. Hormigoizko begiratokiak bi alaketan eta Mirakruz kaleko ertzeko alboan, 6. oin atzeraemanera galeria ireki gisa zabaltzen direnak. Hormigoizko markesia erantsia Karkizano-Larroakako alakan.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Plan berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako bakoaren konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; kareharrizko estaldura.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
 - * Karkizano 6. oinean atzeraemangune zerrendako beirazko itxitura ezabatzea.
 - * Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotzen dira gainerakoak, behe oineko fatxadaren konfigurazio bateratuarekin (materialekin) lotzen direnak barne.